

EZ OHIKO ETA URGENTZIAZKO UDALBATZARRA

Errezilgo Udaletxeko Pleno Aretoan, 2010eko apirilaren hogeita bederatziko gaueko bederatzia eta berrogei minutu direnean, bildu dira, ez ohiko eta urgentziazko Udalbatzarra egiteko ondoko Korporatiboak:

Iñaki Oiartzabal Zinkunegi-Alkate Lehendakaria

Joseba Iñaki Labaka Beristain-Zinegotzia.

Luis Berrondo Lanceta-Zinegotzia.

Jose Luis Albisua Lasa- Zinegotzia.

Luis Arzallus Amenabar,- Zinegotzia.

Bittor Astigarraga Zugasti- ez da etorri.

Josune Arruti Eizagirre, ez da etorri.

Idazkari lanetan, Maria Etxeberria Urretabizkaia Udaletxeko Bitarteko Idazkari Kontuhartzailea.

Alkateak hasera eman dio bilkura honi ondoko gai zerrendaren arabera:

LEHENENGO PUNTUA:

UDALBATZARRAREN PREMIAZKO IZAERAREN AURRETIAZKO AITORPENA.

Alkateak hitza hartu du eta proposatu du udalbatzarraren urgentzia aitortzea. Proposamena aho batez onartu dute.

BIGARREN PUNTUA:

ERREZILGO UDALETXEAN IGOGAILUA INSTALATZEKO PROIEKTUAREN OBRA LANAK EGITEKO KONTRATUAREN BEHIN BETIKO ESLEIPENA ERABAKITZEA.

Ikusirik 2010eko apirilaren 22ko Udalbatzan, Errezilgo Udaletxean igogailua instalatzeko proiektuko obrak Aluminios Azpeitia, S.L-ri esleitu zitzaiola behin behineko izaerarekin.

Ikusirik Sektore Publikoko Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 legearen 135. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, behin behineko akordioa behin betiko bihurtuko dela planguetan aipatzen den dokumentazioa aurkeztuz gero.

Ikusirik Aluminios Azpeitia, S.L.-k eskaturiko dokumentazioa aurkeztu duela.

Aipaturiko guztiagatik, Alkateak jakinerazten du, behin behineko akordioa behin betiko bihurtzea eta Aluminios Azpeitia, S.L-ri behin betiko izaerarekin esleitzea.

Bozketa egin eta Batzordearen proposamena aztertu ondoren, onartu dute ondoko ondorioekin:

1. Aldeko botoak: Iñaki Oiartzabal Zinkunegi, Joseba Iñaki Labaka Beristain, Luis Berrondo Lanceta, Bittor Astigarraga Zugasti, Luis Arzallus Amenabar eta Jose Luis Albisua Lasa.
2. Abstentzioak: ez dago.
3. Aurkako boturik: ez dago.

Beraz, Errezilgo Udaletxean igogailua instalatzeko obrak behin betiko izaerarekin Aluminios Azpeitia, S.L-ri adjudikatzen zaio 2010eko apirilaren 22an harturiko akordioaren arabera.

Beste gairik ez dagoenez, gaueko bederatziak eta hogeit hamar minutu direnean, Alkateak amaitutzat eman du udalbatzar hau eta nik, Idazkari gisa, Akta jaso dut.